



EUSKAL KOSTALDEKO UNESCOREN MUNDUKO GEOPARKEA

**KUDEAKETA PLANA
2018**



SARRERA

2018a errebalida urtea. Aurten berriz hartuko ditugu UNESCOren ebaluatzaileak gure geoparkean ohiko den lau-urteko azterketa egitera. 2014an ebaluatzaileek egin zuten txostena oso aldekoa izan zen, lau urte haietan eginiko aurrerapenak begi onez ikusi zituzten.

2015ean UNESCO programa berria sortu zenetik aldaketa eta hobekuntza asko egin dira ebaluazio prozeduretan. Geoparkeak irizpide hauek jarraituz jardun du eta aurten daukagu hura frogatzeko aukera.

Bestalde, Kudeaketa Plana eta programatutako ekintzak oso baldintzatuta daude Interreg Atlantiar Geoparkeak proiektuarengaitik. 2017an hasi bazen ere, 2018 eta 2019an izango dira urterik oparoenak.

Lan taldearen indartzea eta Geoparapeneko zuzendaritza batzordearen handitzea dira gestio aldetik mugarri aipagarriak. Lurraren Zientziaren atalean norabide berdina jarraituko dugu, EAEan erreferente bihurtzeko nahiarekin eta bide hortan Eusko Jaurlaritzako ingurumen sailarekin elkarlana izango da gakoa.

Geoeskolek protagonismo berezia izango dute aurten, Geoparkezaleak komunitatera batzeko aukera izango dutelako eta ikasle eta irakasleentzat material propioak sortuko direlako.

Eskaintza geoturistikoa Euskadiko Ekoturismo klubaren barruan kokatuko dugu. Jasangarritasunari eta natura turismoari garrantzi berezia emanez eta sektore pribatua honetara egokitzeko erraztasunak ipiniz eta ikastaroak antolatuz.

Geoparkean geoturismoa egitera datozenentzat gure gomendioa irteera gidatuak izango dira. Jendearen interesa gora doanez gure mezua zabaltzeko aprobetxatu behar dugu: naturarekiko errespetua. Sentsibilizazio eta kontserbaziorako ekimenak ere aurre ikusten dira aurten, ildo berdina jarraituz.

Komunikazioa, promozioa eta nazioarteko sareetan presentzia indartzea ere ardatz estrategikoak dira eta horrela daude jasota ekintzetan. Azkenik, Geoparkearen gizarteratze lana erronka handienetariko bat dela jakinda, honen alde egiteko esfortzu bereziak egingo dira, Geoparkezaleak proiektuaren bitartez bertakoen inplikazio eta parte hartzea sustatuz.

PLANGINTZA, ANTOLAKETA ETA KUDEAKETA OROKORRA

Lan-taldea: Geogarapeneko langileak

- **Gerentziak** Geoparkearen kudeaketa orokorrarekin lotutako eginkizunak betetzen jarraituko du, bai Europako eta Munduko Geoparkeen Sarean (EGS/MGS) eta Espainiako Geoparkeen Batzordean (CNEG) ordezkari-tza-lanak gauzatzen ere.
- 2017an **bisita gidatuen dinamizatzaile** lanpostua sortu genuen eta 2018an finkatu egin da kontratu mugagabe baten bitartez. 2017ko irteeren gidatuen datu igotzerak lan postu honen beharra azaleratzen du, 2018ra begira eginkizun hirukoitz batekin:
 - On line sistemaren kudeaketa
 - Turismo zientifikoari zuzendutako eskaintza e-estrukturatu
 - Turismo atalak eskatzen duen gestio orokorra

Kanpo-laguntza:

- **Zuzendaritza Zientifikoak** bere eginkizunekin jarraitzen du, bai EGS eta MGS foroetako ordezkari-tzarekin ere. Gainera, 2016 azarotik Espainiar Estatuko Geoparkeen Foroaren koordinatzailea da eta Geoparkeen Munduko Sarearen aholkulari batzordearen parte da.
- **Komunikazio-zerbitzua eta prentsa-kabinetea** komunikazioaren alorreko aholkularitza, prentsa-oharrak sortzeaz, web-orria eguneratzeaz, eNewsleterrak, etab. arduratuko da.
- **Community manager** bat (sare sozialen kudeatzailea) @Geoparkea markak Facebooken, Twitterren eta Instagramen gauzatuko duen estrategiaz arduratuko da.
- **Ingurumenaren eta jasangarritasunaren** koordinazioa, Naturgune Babestuen (NB) jarduerak eta ingurumen-heziketako ekintzak sustatzeko. 2018an zehar, Geoeskolekiko lankidetzak sendotuko da.
- **Geoparkezale** komunitatea dinamizatuko dugu, sektore pribatuarekin hasitako lanarekin jarraituz eta beste kolektibo batzuekin lan-ildo berriak irekiz. 2018an Geoeskolek egingo dute bat Geoparkezaleak komunitatearekin.
- **Kontabilitate eta aholkularitza juridikoa** erakundearen eguneroko kudeaketarako.
- Interreg Europako proiektuak eskatzen duen bezela, lehen mailako **auditorea** kontratatatu behar da kontuak Bruselara auditatuta bidaltzeko. Proiektuak irauten duen bitartean sei-hileko txostenak bidali behar dira, guztira 6 egiaztapen.



Zuzendaritza Batzordearen indartzea

2018an sail ofizialez gain beste sail batzuei ere emango zaie Geogarapeneko Zuzendaritza Batzordeetan parte hartzeko aukera. Geoparkearen finantziaketan eta ekimenetan parte hartzen dutenen partaidetza bultzatuko da Batzordeetara gonbidatu gisa deituz, bereziki GFAko Landa garapen, EJKo Ingurumen eta Basquetourreko ordezkariari luzatuko zaie gonbidapena. Gañera, presidente aldaketa egongo da datorren bi urteetarako, oraingoan Zumaiako Alkateak hartzen du presidentzia.

Gardentasun ataria

19/2013 Legeak dioen bezela, Geogarapenek web orrian gardentasun-betebeharrak argitaratu behar ditu. Arau horri jarraituz, bete behar hoiei erantzuna ematen dien atal berri bat sortu da webgunean: <https://geoparkea.eus/eu/geoparkeari-buruz/gardentasuna>

.eus

Web gune ofiziala .eus domeinura aldatu da, Geoparkeak euskararekiko duen konpromesua berretsiz.

Interreg, Atlantiar Geoparkeak

2017an onartu zen proiektua eta 2018 eta 2019an zehar izango dira lan nagusiak.

Proiektuak 2018an gestio aldetik emango duena:

Kontserbazioaren kudeaketa, tokiko edo turismoaren inguruko praktika onak ezagutuko dira ikasketa bisita ezberdinen bitartez.

- Esperientzien elkartruke honetan oinarrituta “gestiorako erreminta kit” bat definituko da.
- Geoturismoa neurtzeko adierazleak
- Geokontserbazio Gutuna
- Geoparke hautagaiei aholkularitza

Lortutako tresna hauek gerora begira geldituko diren aktiboak izango dira eta proiekturari denborarekiko jasangarritasuna ematen diote.



1. ARDATZA: ZIENTZIA, KULTURA ETA HEZKUNTZA

Ardatz estrategiko honek Lurraren Zientzien ikerketa eta sozializazioarekin lotutako helburuei ematen dio erantzuna, baita geozintasuna eta ondare natural eta kulturala babestearekin lotutako helburuei ere.

Zehazki, ondare geologikoaz gainera, ondare arkeologikoa, itsas ondarea eta ondare ukiezina hartzen ditu kontuan. Ardatz horren helburuetako bat da, baita ere, ingurumen-heziketako eskaintza koordinatu bat sortzea da, Euskal Kostaldeko Geoparkea hainbat motatako jendearentzat interesgarri egingo duena, eta eskola-esparruarentzat bereziki.

1.1. Lurraren Zientzien (LZ) alorreko ikerketa eta dibulgazioa

- Ikerketaren sustapena
 - Zaragozako Unibertsitateak Zumaiako KT limitean oinarritutako ikerketa eta sintesi lan bat egingo du, Deccan-go (India) gertakari bolkanikoen dinausuroen desagerpenean izan zuten papera aztertzeko.
 - UPV/EHU-ko paleontologia eta estratigrafia lan taldeak Mutrikuko ammonite erraldoien inguruko ikerketan lanean jarraituko du.
- Itzuruneko ignofosilaren monitorizazioa egingo da, IGMEren laguntzarekin. Hauen erorketa arriskua neurtuko da eta digitalizazio lanak egingo dira hauek erakusgai egon daitezzen Algorri interpretazio zentro berrian esaterako.
- Konferentzia eta ikastaroetan parte hartzea.

Urte osoan, topaketa, ikastaro eta beste hainbat forotan parte hartzen dute Geoparkeko ordezkariak. Leku horiek ikusgarritasun handia dute, eta hartzaile oso zehatzei zuzenduta daude, eta Geoparkeak erreferentziazko erakunde gisa posizionatu nahi du horietan, ikerketaren eta dibulgazioaren alorrean.

Momentuz aurten aurreikusten direnak:

- Turislan FICOPA
- Naturewatch Somiedo
- COETUR La rioja
- Esperientzia eskola, Debarrena
- “Ondare geologikoa, geoturismoa eta Geoparkeak” ikastaro trinkoa Goaniako Unibertsitatean, Brasil.
- “Ondare geologikoa, geoturismoa eta Geoparkeak” hitzaldia Florianapolis unibertsitatean, Brasil.
- “Ondare geologikoa, geoturismoa eta Geoparkeak” ikastaro trinkoa Sobrarbeko Geoparkean, Aragoi.



- Gidariantzat formazio ikastaroa

Gidariak prestatzeko ikastaro bat egin zen 2015ean eta arrakasta handia izan zuen. 2018an, gidariak prestatzeko bigarren ikastaroa egingo da. Formatoa, partaideak eta iraupena oraindik zehazteke daude. Urtearen bigarren sei hilekoan izango da, goi denboraldia bukatutzat ematen denean.

1.2. Ondare arkeologikoari eta aurrehistoriari buruzko ikerketa eta dibulgazioa.

- Debako Ermitia haitzuloari buruzko ezagutza ikerketa eta sintesia, UPV/EHUren Kuartenarioari buruzko masterrarekin sinatutako hitzarmenaren barruan.
- Urtiaga haitzuloan aurkitutako azagaia baten jatorriari buruzko ikerketa (bale batena izatea posible da), UPV/EHU-ko ikerlarien eskutik.
- Aurrehistoriaren interpretaziorako estrategia diseinatzea. 2017an burutu gabe gelditu zen gai honi berriz helduko zaio 2018an. Oraindik garatu gabe dagoen Geoparkearen interpretazio-ildoetako bat da eta estrategikoa da Geoparkearentzat lehenbailehen gai honen inguruko produktu turistikoren bat definitzea.

1.3. Itsas ondarearen dibulgazioa:

Itsas historia beste diskurtso batzuetan txertatzea.

1.4. Ondare ukiezinaren dibulgazioa

2017an Euskararen inguruko irteera gidatu bat diseinatu zen. 2018an egutegi jakin batekin eskainiko dira Zumaian proiektu pilotu gisa eta ondo funtzionatzen badu, beste herrietara zabaltzeko aukera aztertuko dugu.

1.5. Ingurumen-heziketa

2017an egin zen planean oinarrituta 2018rako unidade didaktiko bat egitea aurreikusten da; hiru herrietako DBHko ikasle guztientzat produktu bakarra prestatzea. Horretarako irakasleekin, Ingurugeletako arduradunekin eta UPV/EHUko unitate didaktikoen adituak direnekin erabakiko dira ondorengoak:

- Aldez aurretik gelan lantzeko materiala
- Irteerarako materiala
- Balorazioa egiteko materiala
- Gaur egungo ingurumen hezkuntza eskaintza baloratu eta hobetze plana egitea. Dagoen eskaintzaren berri izatea beharrezkoa da, egin beharreko aldaketak egin eta eskaintza propio bihurtzeko.



2. ARDATZA: GEOTURISMOA

Geoturismoa sustatzeko ekintzak proposatzen dira turismo jasangarriaren irizpideei jarraituz beti ere.

2.1. Produktuak eta baliabideak

- Lasturko informazio-gunearen 2. fasea: Karstean saltzeko moduko produktu turistikoak sortzea da erronka nagusietako bat, eta horrela, kostaldearen eta barnealdearen arteko desorekak murrizteko ahalegina egitea. Karstari buruzko informazio-gunea osatzeko kanpo aldean kokatzen diren elementu batzuk interpretatuko direla aurreikusten da: arraste-harriak, barrenarriak, harrobi-frontea... Horrela, harriari eta haren erabilerari buruzko zirkuitu interpretatu txiki bat sortu ahal izango dugu. Ildo honen barruan, bisitagarri izan daitekeen haitzulo baten egokitzapena aurreikusten da.
- Familientzat eskaintza: Gaur egun Geoparkean familientzat eskaintzen dena indartu eta promozionatu egingo da. Merkatu segmentu egokia dirudi bereziki barnealdea pizteko (Lastur eta Olatz).
- Kirol ekitaldiak: Hainbat eta hainbat dira guregana laguntza eske hurbiltzen diren kirol proba antolatzaileak. Irizpide jakin batzuk definitu behar ditugu laguntza eskaera horri erantzun koherente bat emateko.
- Zientzia turismoa: Geoparkearentzat estrategikoa da bezero mota hau erakartzea. 2018an eskaintza katalogo bat definituko da eta promozio bereziak egingo dira bezeroa identifikatutakoan (unibertsitateak, zientzia elkarteak, ikerketa taldeak...)

Ekoturismoa da Geoparkea mugituko den turismo markoa. Basquetourrek bultzatutako ekimenentan izango gara kongresu eta lan mahaietan jarrera aktiboa edukiz (Ekoturismoko III jardunaldiak).

2.2. Bisita gidatuak

Geoparkeko produktu arrakastatsuen da; horrexek bereizten gaitu gertuko beste leku batzuetatik, eta horrexek ematen digu ikusgarritasuna. Gainera, dibulgaziorako tresna eraginkorra da, eta bisitariak asko balioesten dutena.

2018ko programan 16 esperientzia eskainiko dira. Iaz bezela mila eta hirurehun bisita programatu ditugu urte osorako.



Merkaturatze bideak:

- www.geoparkea.eus web gunea eta bere on line erreserba sistema
- Geoparkeko hiru turismo bulegoak eta iaztik Donostiako San Sebastián Region bulegoa
- Bidai agentziak eta rezeptiboak. Urtero urtero indar gehiago hartzen eta negozio bolumena handitzen doaz.

Aurtengo nobedadea bisita gidatuen programan, **euskara eta euskal kulturaren** inguruko bisita berria izango da. Geoparkean kulturak izan behar duen garrantzia aldarrikatuz eta espazio handiagoa hartuz.

2.3. Sustapena eta merkaturatzea

- Turismoa sustatzeko azokak. Basquetourrek edo eskualdeek parte-hartzea duten azoka guztietan egongo da Geoparkea ere. **Basque Fest** 2018an ere izango gara Bilbao Turismo elkarteak gonbidatuta.
- EGN eta GGN sareekin FITUR eta ITB Berlinera joango gara. Lehenengoan mostradorearen ardurarekin eta bigarrenean beste geoparke batzuek ordezkaturiko gaituzte.
- Interpretazio-liburuxkak eta materiala. Geoparkearen sustapen-materiala turismo-bulegoetan eta azoketan banantzen da. Material hau eguneratu egin behar da eguneratze honek eskatzen duen beharrekin: itzulpenak, inprenta...
- Sustapen zehatzak egingo dira bultzada berezia behar duten bisita jakin batzuetarako. Garrantzi berezia emango zaio on-line salmentak sustatzeari. 2018an “Flyscha begirada batean” egiten duenak, baldintza batzuk bete ezker, deskontu kode bat jasoko du beste bisita bat egiteko.
- Bisitei buruzko material grafikoa prestatuko da gidarientzat. Materiala urtero eguneratzen da, hondatu egiten delako, edo diskurtsoan eduki berriak sartzen direlako (fitxak, karpetak...). Aurten Nautiluseko ikerketak eman duen ezagutzarekin diskurtsoa aberastu egingo da, behar diren materialak sortuz. Atzerritarrei material grafikoa eskainiko zaie Nautilus bisita egin ahal izateko.
- 2018an Estatuko 12 Geoparkeekin batera aldizkari bat atera da, FITURen egin da aurkezpena eta Berlinera bidaltzeko asmoarekin ingelesez ere argitaratu da. Datorren urtean, 2019an aldizkaria finantziatu eta Euskadiko standean aurkezteko eskaini dugu gure burua.



3. ARDATZA: LURRALDEA ETA KONTSERBAZIOA

3.1. Ibilbideak eta mendi-bideak diseinatzea

- Georuten Sarearen txostena egin eta gero, 2018an sare hau osatzeko pausoak emango dira, beste administrazio batzuen laguntzaren arabera azkarrago edo polikiago egingo da.
- Aurretik dauden panel eta señaleak ere berriztu eta eguneratu behar dira. Olatzeko Georuta eta miradoreen ibilbidearenak hain zuzen ere.
- Webgunean dauden georutei buruzko pdf deskargableak eguneratuko dira eta hizkuntza desberdinetan itzuliko dira.

3.2. Interpretaziorako azpiegiturak

- 2018an hiru udalerrietako herri sarreretako seinale bertikalak bateratzeko plan bat gauzatzeko asmoa dugu. Hau lagungarri izango da kanpora begira Geoparkearen irudi bateratu bat emateko.
- Ildo berdinetik eta 2018a ebaluazio urtea dela kontutan izanda, UNESCOren logoaren presentzia handitu behar dugu in situ (turismo bulego eta interpretazio zentroetan gutxienez).

Hurrengo proiektuen ejekuzioa ez dago Geoparkearen mende, eta, beraz, ez da Kudeaketa Planean sartu; alabaina, eragin zuzena dute gugan. Alde batetik, Zumaiako Udalak eta GFak San Telmotik Algorriko puntarako sarbidearen egokitzapenean burutuko duen lana eta bestalde, Mutrikuko amoniteen bilduma biltegitatu eta aztertzeko espazio baten egokitzapena.

3.3. Ingurune naturala babestea eta kontserbatzea

- Boluntariora, herritarrekin zientziari lotutako ekimenak lantzea. Estatuko Geoparkeekin batera sarean egiteko aukera aztertu behar da, gaur egun Biosfera Erreserbek diharduten bezela, formakuntza bateratu baten bitartez adibidez.
- Nazioarteko egunen ospakizuna. GGN saretik datorkigu nazio arteko egunen ospakizunerako gomendioa. Iaz arrakasta handiarekin Mendien Nazioarteko Eguna ospatu genuen eta 2018an errepikatzeke asmoa daukagu, oraindik formatoa zehazteke dagoen arren.



- Naturgune babestuen ekosistemen erakusketa bat egingo da ikasle eta publiko orokorrari zuzendua. Roll up-en bidez Erraz mugitu daiteken formatua izango du.
- GFA eta Zerynthia Elkartearekin batera Geoparkean Alcon-a Phengaris-Tximeleta populazioaren egoera hobetzeko proiektu bat egingo da. Proiektu honek ikerketa, babesa eta dibulgazioko ekimenak lotzen ditu.
- Marearteko zabalgunea oso toki sensiblea da. GFA Erabilera Publikoko Plana idazteko ardura dauka eta Geoparkeak aldi berean eta era koordinatuan hainbat ekimen martxan jartzen lagunduko du: tokiko jasate ahalmena, eskolen kontrola, izakien identifikazioa, sentsibilizazioa, formakuntza...
- Naturarekiko sentsibilizazioa indartzeko ekimenak. Adibidez natura argazki tailerra, zuhaitzak ezagutzeko tailerrak...
- Geolodia-ren antolakuntza



4. ARDATZA: KOMUNIKAZIOA

Aurten garrantzi berezia izango du Interreg proiektua zabaltzeko komunikazio esfortzuak. Web gunea, sare sozialak, newsletterra eta proiektua promozionatzeko materialak sortuko dira. Geoparkeak bakoitzaren promozioaz gain proiektuarena ere egin beharko du.

4.1. Harremanak Europako Geoparkeen Sarearekin (EGS) eta UNESCOrekin.

Atal honen helburua, nazioarteko mailan geoparkearen presentzia eta influentzia handitzea da. Horretarako, jarrera aktiboa izango dugu bai antolatzen diren topaguneetan eta bai eskaintzen zaizkigun beste aukera batzuetan ere.

- EGSren topaketak 2018an
 - Udaberriko Koordinazio Batzordea Karavanke Geoparkean (Austria-Slovenia) martxoaren 20tik 24ra.
 - EGNren Koordinazio Batzordea eta Biltzarra Adamello-Brenta Geoparkean (Italia) irailan.
- Urteroko ekarpenak Europako eta Munduko Geoparkeen Sareari, sustapen-tasa gisa lehenik, eta UNESCOren Geoparkeen programaren funtzionamendurako ekarpen gisa bigarrenik.
- Geoparkeko zuzendari zientifikoa Espainiar Estatuko Geoparkeen Foroaren koordinatzailea da eta Geoparkeen Munduko Sarearen aholkulari batzordearen parte da.
- UNESCOko ebaluatzaileen batzordeko kide izateak ebaluazio misioak egitea dakar.
- Interreg proiektuan partaidetzak ere 6 hileroko topaketak eta ikasketa bisita egingo da, 2018an:
 - Parc naturel Armorique (frantzia) ekainaren 26tik-29ra
 - Euskal Kostaldeko Geoparkean. Azaroan, datak itxi gabe.
- Red Vasca Unesco / Euskal Herriko Unesco Sarearen sustapena, 2018an bi ekitaldi ezberdin antolatuko dira. Martxoaren 19an Albaolan, osoko bilkuran 2017ko jarduera memoria eta 2018 ekintza plana aurkeztu eta onartuko dira. Bestalde, udazkenean Garapen Iraunkorraren Helburuei GIH/ODS buruzko ekitaldi bat antolatuko da, gizartearen formakuntza eta sentsibilizazioan eragiteko.



Europako Sareko Koordinazio batzordeetan hurrengo lan taldeetan hartuko dugu parte:

- SDG (GIH/ODS) lan taldean
- Hezkuntza lan taldean
- Estatu mailako foroak
- Ondare geologikoa

Bi sareek erabiltzen dituzten informazio tresnetan gure ekarpenen maiztasuna handitu. Besteak beste:

- EGN newsletter, sei-hilerokoa
- GGN Newsletter
- EGN magazine
- Ekitaldien egutegi digitala

Kontrolerako erabiltzen diren txostenak ere puntualki bidaliko dira:

- Sei hilabeteko txostena
- Urteko txostena
- Geoparkeen asteko programa eta balorazio txostena

Estatuko Geoparkeen Batzordean ere ordezkaritza hirukoitza daukagu: Geoparkeko ordezkaria, EAEko ordezkaria eta Geoparkeen foroaren koordinatzailea. 2018 Otsailaren 21ean izango da hurrengo batzarra.

4.2. Komunikazio estrategikoa

ON-LINE

- Web-orriaren kudeaketa eta erreserben zentralaren hobekuntzak urtero gauzatzen ditugu. www.geoparkea.eus web-orria etengabe eguneratzen dugu, eta aldizka albiste berriak argitaratzen ditugu. Gainera, edukiak eguneratzen ditugu eta atal berriak irekitzen ditugu urtero, eta sasoi bakoitza hasi baino lehen hobekuntza ugari egiten ditugu bisita gidatuen atalean eta erreserba-prozesuan. Sistema hobetzen doa erreserba-kopurua handitzen den heinean. 2018rako egingo ditugun hobekuntza nagusiak:
 - Bisita eta eduki berriak
 - Erreserba sisteman hobekuntzak
 - Geologia atala hobetu
 - Georutak pdf deskargablean eta hizkuntzetan itzulita
- Gardentasun atalaren sorrera web gunean.
- Interreg Atlantic Geoparks proiektuaren komunikazioa: web gunea, newsletterra, sare sozialak.



OFF-LINE

- Komunikabideetan iragarkiak jartzea, irratian zein prentsan edo aldizkari espezializatueta. Batez ere hiriburueta komuikabideeta, eta jarduera turistikoa murriztagoa den hilabeteeta bereziki. laz urria zehar euskarazko bitak promozionatzeko kanpaina bat egin genuen oso emaitza positiboekin, aruten ere errepiatuko dugu.
- Aldizkako lankideta ETB1 eta ETB2-rekin.
- Geoparkearen erredukzionismoaren kontrako kanpaina. Geoparkea duen handitasun erakusteko modurik egokiena bilatuko dugu osoz, geografiaren zein jarduere ikuspegitik. Bideo labur batzuk egingo ditugu gai ezberdinen inguruan (eskolak, artisaauak...) material hori sare sozial eta web gunearen bitartez partekatu eta zabaltzeko.
- Sei hileko albiste boletina 2012tik dago martxan eta hausnarketa sakon baten ondoren formatoa agortuta dagoela adostu dugu. Honen orde, herri/udal aldizkarieta Geoparkeari tarte bat gordetzeko proposamena egingo zaie. Baleike aldizkariak zientziari tarte bat gordeko dio eta gure partaideta eskatu du. Honetaz gain Kalaputxi/Hitza/Berriketa/Debaberrirekin herri aldizkariekin eredu berdina jarraitzen saiatuko gara.
- Geoparkeko sustapen-jarduera guztietan kalitate handiko argazkiak, liburuxkak, web-edukiak, iragarkiak eta abar sortu behar dira. Horretarako, argazkilari profesionalekin lan egiten dugu, eta adostutako baldintzetan sustapenerako erabil ditzakegun argazkiak hautatzen ditugu.
- Interreg proiektuere barruan, Euskal Kostaldeko Geoparkeak, 5 herrialde eta 12 lurraldetan grabatutako irudiekin geoturismoko bideo bat egiteko ardura du. Negoziatutako prozedura baten bitartez egingo da kontratazioa eta materiala urtea amaitu aurretiko egongo da ikusgai.



5. ARDATZA: TOKIKO GARAPENA ETA JASANGARRITASUNA

5.1. Lehen sektorea sustatzea

- **Geogourmet saskiak** saltzea lurraldean ekoiztako produktu bereziak balioesteko eta Geoparkea sustatzeko ekintza gisa. Hornitzaile berekin jarraitzen dugu, eta hiru turismo-bulegoetan egongo dira salgai prezio berean.
 - Txakolina: Sagarmíña eta Flysch
 - Gazta: Goienetxe
 - Atuna kontserban: Sizzo eta Nardín

5.2. Geoparkezaleak

2017an sektore turistikoko enprekin hasi ginan lanean, aurten eskolak gehituko zaie.

- Sektore pribatuarekin harremana sendotzeko lanak egingo dira:
 - Formakuntza saioak antolatu, jasangarritasun praktika onak ikastaroa
 - Komunitatearekin bat egin dutela erakusteko ekitaldia eta familia-argazkia
 - Web-orrian Geoparkezaleak atala diseinatzea, ekimenarekin bat egin duten enpresei buruzko informazioa jasoko duena.
 - Eskaintza bereziak proiektu jakin batzutan: Lasturko mendi martxa 2018, etab
 - Geoparkezaleen irizpideak finkatzea (TJEGrekin bat)
 - Euskararen erabilera neurketa parametro bat izatea.
 -
- Eskolak Geoeskola izateko irizpideak adostuko dira komunitatera gehitzen joan daitezten.

Basquetourrek ekoturismoa sustatu nahi du eta helburu hori lortzeko Geoparkea oso ondo posizionatuta dago. "Entitate laguntzaile" marka SICTED agirian oinarrituta dago eta hau abiapuntu egokia da Carta Europea de Turismo Sostenible (CETS) edo Ekoturismo Produktu Klubarekin bat egiteko. 2018an gai honetan sakonduko dugu.

Geoparkezaleen komunitatea bisibilizatzeko bideo bat egingo da non entitate guztiak azaltzen diren, Geoparkeari aurpegia ipiniz.



5.3. Geoparkeen Europako Astea

Maiatzaren 26tik ekainaren 11ra, Geoparkeen Europako Astea ekimena gauzatuko da. 2018a Kultura Ondarearen nazioarteko urtea da hori izango da hain zuzen ere aurtengo letoa.

Urtero bezela, antolatuko diren ekitaldiak:

- Hitzaldiak
- Tailerrak, erakusketak...
- Doako bisita gidatuak
- Marrazketa-lehiaketa ikasleentzat
- Jaialdia, mendi-martxa...

Iaz arrakasta handia eduki zuen GeoTalks ekitaldia mantentzeko asmoa daukagu. Geoparketik kanpo ateratzen den ekitaldi bat non zientzia, kultura eta humorea batzen diren formato berritzaile eta erakargarri batekin.